



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EDESA ETA GEYSERREKO LANGILEEN IRAUNGITZE EREAREN INGURUAN

Jada urte eta erdi baino gehiago igaro da CNA Group eta Edesa eta Geysarren arteko gora-beherak hasi zirenetik. 2016ko uztailean, hain zuzen, lehen langileen kaleratzeak gertatu ziren eta beste hainbat gertakari tartean, iazko irailean CNA Group taldeak Edesa eta Geyserreko jardun industrialak eten eta langileak kaleratzeko EREa jarri zuen martxan. Orduz geroztik makina bat elkarretaratze eta salaketa egin dituzte bertako langileek eta horien harira, Arrasateko Udalak uneoro adierazi die bere babesa eta elkartasuna. Horrez gain, Udala sarritan bildu da Edesako enpresa batzordearekin langileen egoera babestu eta kaleratzeak ekiditeko aukera eta bide guztiak aztertu eta jorratzeko borondatez.

Dena dela ere, CNA taldeak aurrera egin du hartutako erabakiarekin eta dagoeneko Edesa eta Geysar hartzekodunen konkurtsoaren azken fasean daude. Ondorioz, Edesako 91 langile eta Geyserreko 34, guztiak kaleratuak izango dira. Horren harira, Arrasateko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- 1- Lehenik eta behin bere babesa eta elkartasuna adierazten die Edesa Industrial eta Geyserreko langileei.
- 2- Arrasateko Udala ez dator bat CNAko zuzendaritzak hartutako erabakiarekin eta beste behin erabaki horrekiko bere desadostasuna eta kezka azaltzen ditu.
- 3- Arrasateko Udalak ez du inondik inora bidezkoztat jotzen langileen kaleratzea ez eta Arrasateren desindustrializazioa ere.
- 4- Halaber, langileak eta haien lanpostuak lehenetsi eta mantentzea ardatz hartuta, hartzekodun lehiaketa publikoaren azken fase horretan, langileak eta Arrasateko industria lehenestea eskatzen die Arrasateko Udalak eskumena duten erakunde, instituzio, enpresa zein eragileri: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Fagor S.Coop taldea, Ekimen Berri, eta konkurtsoko administratzailea.
- 5- Arrasateko Udalak Fagor taldearekin eta Mondragon Korporazioarekin bitartekari lanak egiteko borondate eta konpromiso irmoa azaltzen ditu, etorkizunera begira sor daitezkeen proiektu industrialak sustatu eta bide batez, Arrasatek duen izaera industrial hori indartu eta bultzatzeko.